

2018ko ORRI-MARKAGAILU LEHIAKETA: oinarriak

1- Helburuak:

Lehiaketa hau, Juan Orobiogoitia Institutuak eta Iurretako Herri Bibliotekak, gazteen artean sormena eta irakurketa bultzatzeko helburuarekin antolatzen dugu.

2. Parte hartzea:

Lehiaketa honetan Iurretan erroldatuta dauden edo Iurretan ikasten duten gazteek parte hartu ahal izango dute: 12-18 urteko ikasleek.

3. Irudia, gaia eta lema:

Orrri markagailuak, irudi originala izan beharko du. Lema edukitzekotan, irudian integratuta egon beharko da.

Gaia: irakurzaletasuna.

4. Neurriak:

Orrri markagailuak 210 milimetroko luzera eta 50 milimetroko zabalera izan beharko ditu.

5. Euskarria:

Irudia, paperean edo pdf formatuan entregatuko da.

6. Non eta nola entregatu.

Lanak, Iurretako Herri Bibliotekan, Bidebarrieta kalea 4. zenbakia (1. solairuan) 48215 IURRETA (Bizkaia) edo lehiaketa@iurreta.eus helbidean entregatuko dira.



Paperean: Ezizena eta izenburua baino eramango ez duen kartazal handi baten barruan aurkeztuko dira lanak. Kartazal horren barruan beste txikiago bat sartuko da eta bertan honako datuak jarriko dira: izen- abizenak, ikastetxearen izena, adina, helbidea, telefonoa eta e-posta. (Sartuari lana formatu digitalean entregatzeko eskatuko zaio).

Digitalean (e-mailez): mezuan goian aipatutako datu pertsonalak adierazi eta lanak pdf formatuan bidali beharko dira.

7. Epea:

Lanak 2017eko urriaren 30etik azaroaren 10erarte aurkeztu ahal izango dira.

8. Erreprodukzio baimena:

Lehiaketa honetan parte hartzen duenak Iurretako Udalari orri markagailuaren irudiaren erreprodukzio eskubidea ematen dio. Adin txikikoen kasuan gurasoen edo tutoreen baimena beharko da.

9. Epaimahaia:

Epaimahaia Juan Orobiogoitia Institutuko eta Iurretako Udaleko ordezkariak osatuko dute.

10. Saria:

Saritua 150€tan baloratutako saria jasoko du.

11. Ebatzia :

Lan saritua Iurretako Herri Bibliotekak 2018erako argitaratuko duen orri-markagailuan agertuko da. Sari banaketa 2017eko abenduaren 1ean izango da. Epaimahaia lanen maila nahikoa ez dela pentsatzen badu, saririk ez ematea erabaki dezake.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri-arau hauek eta epaimahaikoen erabakia onartzea dakar.